

# BIODIBERTSITATEARI BURUZKO DAUETATIK ERABAKIETARA:


## NATURAREN BALIOAK HOBETZEA ESKUALDE MAILAKO GARAPEN POLITIKAK HOBETUZ

**Kontserbazioaren arloko lehenetsunak eskualde-mailako garapen-politiketara egokitzea**, EGEF funtsaren erabilgarritasunari arreta berezia eskaintzen zaion aldi berean, berebiziko erronka da biodibertsitatearen arloko kontserbazio-estrategia sendoak eta eraginkorrak ezartzeko Europan eta eskualdeetan. Hala ere, kontserbazio-ahaleginak hobeto lehenesteko, zuzen erabili behar da biodibertsitateari buruzko informazio koherentea, garrantzizkoa eta egituratua, erabakiak hartzeko prozesua funtsatu eta, azkenean, bideratzeko.

BID-REX proiektuaren helburua da naturaren balioak hobetzea eskualde-mailako garapen-politikak hobetuz, **horretarako, biodibertsitateari buruzko datu garrantzitsuen eta kontserbazioari buruzko erabakiak hartzeko prozesuen arteko harremana sortuta/indartuta**. Zehazki, biodibertsitateari buruzko informazioa erabiltzen lagundu nahi da eta, aldi berean, **Europako ondare naturalaren kontserbaziora EGEF funtsak esleitutakoaren inpaktua areagotu**, biodibertsitateari buruzko informazio egokian oinarrituta erabakiak hartzeko prozesuak bideratuz.

**“Datu fidagarrietan oinarritutako metodoak baliatuz,  
biodibertsitatearen arloko kontserbazio ahaleginak  
hobeto lehenetsi ahal izatea”**

**IRAUPENA:** 5 urte (2016ko apirila-2021eko martxoa)

 FASEA: Eskualde arteko ikaskuntza-prozesua (3 urte)

 FASEA: Jarduera-planaren betearazpena gainbegiratzea (2 urte)

**AURREKONTUA GUZTIRA:** 1.609.294 €

(% 85 EGEFk finantzatuta)

## Zein da Interreg Europe programaren helburua?



Interreg Europe programa **Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF)** finantzatzen du, politikak lantzen aritzen diren erakunde garrantzidunen artean politikak ikasten laguntzeko sortu zen, **eskualde-mailako garapen politikak eta programak hobeto betearaztea** helburutzat hartuta. Europa osoko eskualdeko eta tokiko agintari publikoei eta eskualdeetako bestelako eragile garrantzidunei ahalbidetzen die politika publikoen funtzionamenduari buruzko jardunbideak eta ideiak trukatzeko eta, era horretara, irtenbideak aurkitzeko bakoitzak bertako herritarrentzat ezarrita dituen estrategiak hobetzeko (Iturria: Interreg Europe Programaren eskuliburua, 2016ko urtarrila)

## Parte hartzen duten eskualdeak



**“Biodibertsitateari buruzko informazioa erabiltzen laguntzea eta Europako ondare naturalaren kontserbaziorako EGEFk esleitutakoaren inpaktua areagotzea”**

	ESKUALDEA	AZTERTUKO DEN TRESNA POLITIKOA	KIDEAK
1	KATALUNIA	Kataluniako EGEF programa operatiboa 2014-2020 6. ARDATZA: Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea. 6.3.2 eta 6.4.2 helburu estrategikoak.	 Generalitat de Catalunya <b>Departament de Territori i Sostenibilitat</b>
2	EUSKADI	Euskadiko EGEF programa operatiboa PO6 «Ingurumena kontserbatzea eta babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea»	 <b>EUSKO JAURLARITZA</b> <b>GOBIERNO VASCO</b>
3	NORFOLK KONDERRIA (Erresuma Batua)	Norfolk Konderriko EGEF 2014-2020 (Ingalaterra). LEHENTASUNEZKO ARDATZA: Ingurumena kontserbatzea eta babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea 2-A4. INBERTSIO LEHENTASUNA 6d Biodibertsitatea eta lurzorua babestu eta leheneratzea, eta ekosistema-zerbitzuak sustatzea, NATURA 2000 eta azpiegitura berdea barne direla.	 <b>Norfolk</b> County Council  <b>UEA</b> University of East Anglia
4	MARCHE ESKUALDEA (Italia)	Marche eskualdeko sare ekologikoa	<b>REGIONE MARCHE</b> 
5	LJUBLJANA MARSH (Eslovenia)	Ljubljana Marsh Parke Naturalari buruzko erregelamendua	 <b>NIB</b> NATIONAL INSTITUTE OF BIOLOGY

	ESKUALDEA	AZTERTUKO DEN TRESNA POLITIKOA	KIDEA
6	IPARRALDEKO LAUTADA ZABALEKO ESKUALDEA (Hungaria)	Ingurumenari eta efizientzia energetikoari buruzko Hungariako programa operatiboa 2014-2020	
7	VALONIA (Belgika)	Valoniarako Eskualde Politikari buruzko Adierazpena 2014-2019	

### *Proiektuaren ikuspuntua*

BID-REX proiektuak **eskualde arteko ikaskuntza-prozesu interaktibo bat** garatuko du, helburu izango duena ingurumenari buruzko informazioa erabiltzearen eta erabakiak hartzearen arteko bide hori egiteko baliagarriak izan diren ikuspuntuak, erremintak eta metodoak trukatea. Lan-plana, zehazki, diseinatu da tokiko eta eskualdeko ikaskuntza-prozesua ahalbidetzeko, behar bezala planifikatuta eta antolatuta hitzaldien, tailerren eta bisita zehatzagoen bidez, **jardunbide egokiak aztertu eta trukatzeko aldera**. Jarduera horiek lagungarriak izango dira ikasitakoa pixkana integratzen joateko.

**Gaikako tailerrak** dira truke-jarduera nagusiak, eta proiektuko lan-planaren ardatz nagusia dira. Jardunbide egokiei buruzko ezagutza-trukeak eta eskualdeek dituzten erronkei eta eman daitezkeen konponbideei buruzko eztabaidak tokiko eragile eta aktore-talde bakoitzak aurretik izandako esperientzietan eta ezagutzetan oinarrituko dira. **Truke-jardueretako aztergaiek lerro argi bat eta horri loturiko ibilbide bat jarraitzen dute**, eta hasten dira eskualdeen premiak aztertuz, jarraitzen dute erreminta eta metodologiekin eta azkenean aipatzen dira politikan dituzten inpaktuak.

**Eskualde bakoitzarentzat jarduera-plan bat** prestatuko da, eta tailerretan ikasitako lezioak nola aplikatu daitezkeen jakiteko informazio zehatza emango da eskualde bakoitzean aztertutako tresna politikoa hobetzeko. Aldian behin bilerak egingo dira **eskualdeko tokiko eragile-taldeekin eskualde bakoitzarentzat baliagarriak diren emaitzak identifikatzeko**, eta dagokion jarduera-planeari sartu eta egokituak dira. Bestalde, gaikako tailer bakoitzaren dokumentu teknikoak ere argitaratuko dira emaitzen ondorioak parte-hartzaileen ingurunera mugatu ez daitezkeen.

## Eskualde arteko gaikako tailerrak:

### Ikaskuntza-prozesuaren oinarria

<p><b>1. seihilekoa</b> [2016/04-2016/09]</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• PROIEKTUA ABIAN JARTZEA - Katalunia</li> </ul>
<p><b>2. seihilekoa</b> [2016/10-2017/03]</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• ERABAKIAK HARTZEKO ARDURA DUTENEN INFORMAZIO BEHARRAK - Valonia (Belgika)</li> </ul>
<p><b>3. seihilekoa</b> [2017/04-2017/09]</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• INFORMAZIOA PREMIETARA EGOKITZEA - Euskadi</li> </ul>
<p><b>4. seihilekoa</b> [2017/10-2018/03]</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• DATUEN FLUXUAK HOBETZEA - Iparraldeko lautada zabaleko eskualdea (Hungaria)</li> </ul>
<p><b>5. seihilekoa</b> [2018/04-2018/09]</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• ERABAKIAK HARTZEKO ARDURA DUTENEN ETA DATUAK HORNITZEN DITUZTENEN GAITASUNAK GARATZEA - Britainia Handiko hainbat erakundetara bisita. Norfolk konderria (Erresuma Batua)</li> </ul>
<p><b>6. seihilekoa</b> [2018/10-2019/03]</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• ZER NOLAKO ERAGINA IZAN DU IKASKUNTZA PROZESUAK GURE JARDUERA PLANETAN. Ljubljana Marsh (Eslovenia)</li> </ul>

[www.interregeurope.eu/bid-rex](http://www.interregeurope.eu/bid-rex)

### Kideak:

